

BELDURRA

EMOZIOAK LANTZEN

Gure **ongizatea arriskuan** sumatzen dugunean sortzen zaigun emozioa edo sentimendua da beldurra.

Aukeratu zein egoerataz senti dezakegun hori, hiru dira erantzun egokiak:

Talde batean jolasten uzten ez digutenean.

Bakarrik sentitzen garenean.

Ilunpean gaudenean, amesgaiztoak ditugunean etab...

Lagun batek kasu egiten ez digunean.

Norbaitek barregarri uzten gaituenean.

Ezezaguna zaigunaren aurrean gaudenean,
pertsonak nahiz lekuak edo egoerak izan.

INURRI BIDAIARIA

Inurritxoa beldurtuta zegoen, lagunak begien bistatik galdu eta bakarrik sentitzen zen.

-A zer zoritxarra! Bakarrik utzi naute -zioen negarrez, alde batera eta bestera begira zebilen bitartean.

Han zebilen sugandila batek galdetu zion:

-Zer dela eta ari zara negarrez?

-Galduta nago, nire taldekoek alde egin dute eta ez ditut aurkitzen. Beldur naiz, ez baitakit bakarrik etxera itzultzen.

-Ez kezkatu, aurkituko ditugu, zatoz nirekin!

Inurritxoa hain txikia zenez, sugandilaren gainera igo zen.

-Goazen basoan zehar ea norbaitek ikusi dituen zure lagunak.

Errekatxo batera iritsi ziren eta igel batek galdetu zien:

-Nora doa inurritxo bat sugandilaren gainean?

Sugandilak esan zion inurria beldurtuta zegoela lagunak galdu zituelako eta lagundu egin nahi ziola.

-Nik ere lagundu nahi dizuet; igo zaitezte nire gainera, ibaiaren ertzetik joango gara ea norbaitek ikusi dituen zure lagunak. Ez egin negarrik, sugandila eta bion artean aurkituko ditugu eta.

Sugandila igelaren gainera igo zenean, inurria ikaragarri poztu zen, han goitik ikusten zuena paregabeko ikuskizuna baitzen.

-Zenbat gauza ikusten ditudan hemendik! Zein handia den hau guztia! -zioen txunditurik, begiak zabal - zabalik zituela.

-Nora doaz inurria eta sugandila, igelaren gainean? -galdetu zien inguruan zebilen dortoka batek.

Eta orduan istorioa kontatu zioten.

-Nik ere lagundu nahi dizut, inurritxo. Igo zuek hirurok nire eskolaren gainera, badakit non egon litezkeen inurriak.

-Baina zu oso motela zara! -esan zuen sugandilak.

- Baina zaharra naiz eta oso jakintsua. Nik badakit zein diren inguruko animalien ohiturak eta badaukat inurriari laguntzea inurritegia topatzen.

Inurria zeharo txundituta zegoen, ezin zuen txintik ere atera. Igela dortokaren gainera igo zen, hara zer ikusi zituen orduan handik!: ibaia, lorez estalitako zelaia, mendiak, urrutiko etxeak...Ezin zuen imajinatu ere egin mundua hain handia izango zenik.

"Nire lagunak hau guztia ikusiko balute" pentsatu zuen aieneka ari zen bitartean. Jadanik ez zuen beldurrik somatzen; izan ere, mendian aurkitzen zituen animalia guztiak bere kideak topatzen laguntzeko prest zeuden. "Nire lagunak egoera dibertigarri honetan ikusiko banindute!..."

Bidean inurri ilara bat topatu zuten eta dortokak galdetu zien:

-Ez zarete ba ibiliko zuen lagun baten bila?

-Bai, bai -erantzun zuten negar zotinka.

Orain dela gutxi galdu zaigu, eta ez dugu etxera itzuli nahi aurkitu arte, hain beldurtuta egongo da, gaixoa!

-Eta zer dela eta daramazu eskolaren

gainean igela? Eta igelak sugandila? Eta sugandilak...gure laguna?

Zur eta lur zeuden ikusten ari zirena ikusita.

-Lagunak, a zer poza!! Lagun hauei esker aurkitu zaituztet eta gainera, mundua zein handia den jakin dut. Beldurtuta nengoen, bakarrik sentitzen nintzelako, baina gero sugandilak, igelak eta dortokak lagundu didate. Dortokak, jakintsua eta buru onekoa izanik, bazekien non egongo zineten.

Lehenengo igela dortokaren gainetik jaitsi zen, ondoren sugandila igelaren gainetik eta azkenean inurria sugandilaren gainetik. Inurriek esan zioten handik aurrera lagunak ondoan, urrundu gabe, ibiltzea komeni zitzaiola, gal ez zedin; jarraian animaliei -dortoka, igela eta sugandilari- eskerrak eman zizkieten inurriari laguntza eman izanagatik.

Harrezkero, inurria lagunak ondoan ibili ohi da, baina noiz edo noiz ingurura begiratzen du, ea bere gainean paseatzera eramango duen lagunik ikusten duen.

Erantzun ondorengo galderak:

- Nola sentitu zen inurria lagunak begien bistatik galdu zituenean?
- Animaliek kideak aurkitzen lagundu diote. Arazoren bat duzunean zure lagunak laguntzen al dizute?
- Beldurra pasatu zaionean inurria poz-pozik dago, handik goitik ikusten zuenaz jabetzean. Inoiz beldurra gainditu ondoren lortu al duzu ondo sentitzea? Noiz?
- Inurriaren lekuan egongo bazina, zer egingo zenuke?
- Inurria bera margo dezakezu edota kideak aurkitzen lagundu dioten animaliak.